

38E/2023 Ebazpena, ekainaren 7koa, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko Zuzendari Kudeatzailearena, zeinaren bidez ebazten baita "Irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzendituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko laguntzak 2023. urterako" dirulaguntzarako deialdia.

ERREFERENTZIA: **Espediente kodea: 0011-4410-2023-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko Harremanetarako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskararen Sustapenaren Atala
Tel.: 848 426054
Helbidea: Paulino Caballero kalea 13, 31002, Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Laguntzak, irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzendituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko

Herritarrekiko Harremanetako sailburuaren 17ko 31E/2022 Foru Aginduaren bidez, 2023an irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen dituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko laguntzen deialdia onartu zen.

Maiatzaren 16an Batzorde Teknikoa bildu zen jasotako eskaerak aztertzeko. 22 eskaera izapidetu dira eta horietatik bat baztertu egin da.

Euskararen Sustapen eta Plangintzaren zerbitzuko zuzendariak proposamen-txostena aurkeztu du, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten irabazi asmorik gabeko 8 entitateei dagozkien laguntzak emateko.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua Erakunde Autonomoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuak emandako ahalmenez baliatuz eta azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearekin bat etorritz, honako hau,



EBATZI DUT:

1. Eskatutako laguntzak esleitzea taula honetan jasotako onuradunei:

Esp zenbakia	IFZ	Enpresen izena	Aurrekontu partida	Urtea	Kopurua
0011-4410-2023-000001	G7140402 4	HAZIALDEKO	G/B30002/B3200 /4819/334113	2023	4.748,13
0011-4410-2023-000001	G7140402 4	HAZIALDEKO	G/B30002/B3200 /7819/334103	2023	1.107,69
0011-4410-2023-000008	G3113748 2	FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES OBRERAS SINDICALES-LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK	G/B30002/B3200 /4819/334113	2023	32.975,11
0011-4410-2023-000010	G3171589 9	FUNDACION CLUB ATLETICO OSASUNA	G/B30002/B3200 /4819/334113	2023	49.276,76
0011-4410-2023-000006	G83496000	FUNDACION KOINEAEQUALITAS PARA LA CALIDAD Y DESARROLLO SOCIAL	G/B30002/B3200 /4819/334113	2023	3.000,00
0011-4410-2023-000004	G3104152 8	ASOCIACION INSTITUCION OBERENA	G/B30002/B3200 /7819/334103	2023	1.033,85
0011-4410-2023-000005	G31156920	ESCUELA NAVARRA DE TEATRO EL COLECTIVO	G/B30002/B3200 /7819/334103	2023	1.366,15
0011-4410-2023-000011	G31560527	ASOCIACION LUDOPATAS DE NAVARRA ARALAR	G/B30002/B3200 /7819/334103	2023	1.236,93
0011-4410-2023-000012	G31412729	ASOCIACION DE TURISMO RURAL IRATI-ORREAGA	G/B30002/B3200 /7819/334103	2023	1.255,38



2. Eskaera hau ukatzea:

Esp zenbakia	IFZ	Enpresen izena	Ukatzeko arrazoia
0011-1491-2022-000015	F3109862 7	NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA SCI	Ez du 5.6.1 oinarria bete

3. Ebazpen hori eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio. Ezetsitako eskabidearen kasuan arrazoiak adieraziko dira.
4. Halaber, ebazpen hau eta I. eta II. eranskinak helaraztea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Herritarrekiko Harremanetako Departamentuan duen Kontu-hartzailetza Delegatura, departamentu horretako Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Kudeaketa Administratibo eta Ekonomikoaren Atalera, Euskarabideko Euskara Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzura eta Programen Bulegora, eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera bidezko ondorioak izan ditzaten.
5. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruña, 2023ko ekainak 7

Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuko Zuzendari Kudeatzailea
Mikel Arregi Pérez

